

 <p>IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA</p>	Espedientea: / Expediente:	2026-WDDT0003
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	000000 -
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Ordezkarria: / Representante:	
	Gaia: / Asunto:	GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN DIHARDUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK

ALKATE-DEKRETUA

GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA arloan 2026 urterako diru-laguntzak emateko, instrukzio organoak, Ibarra Udalak Gizarte Zerbitzuen alorrean diharduten pertsona edo elkarteentzako diru-laguntzen oinarriak aurkeztu ditu.

Kontu-hartzailearen eta Idazkariaren txostenak kontutan izan dira.

Oinarri hauen helburua, 2026. urtean Ibarra GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA arloan emango diren eta hurrengo paragrafoan aipatzen diren diru-laguntzek eman ahal izateko eta arautzeko oinarri zehatzak ezartzea da.

2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra arautuko ditu diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.

2024ko apirilaren 19ko GAOko 76. zenbakian argitaraturik dagoen 2024-2027 urte bitarterako Ibarra Udalaren diru-laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraiki egiten da honako deialdia.

Deialdi honen bidez emateko zenbatekoa 5.000 eurokoa da 1.07.231.00.481.00 2026 partidari egotziko zaio

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako eskuduna gizarte politikak, politika feminista, aniztasuna departamentu burua izango da

Departamentu buruak Alkateari edota Zinegotzi delegatuari aurkeztuko dio proposamena eta honek dekretu bidez onartuko du.

Zinegotzi honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 23.4, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikulua arabera eta 153/2025 Alkate Dekretuan esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENENA.- Onartzea 2026 urtean GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA - Gizarte Zerbitzuen alorrean diharduten pertsona edo elkarteentzako Ibarra Udalak emango dituen diru-laguntzen ondorengo oinarriak:

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua 2026. urtean Ibarra GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA arloan emango diren eta hurrengo paragrafoan aipatzen diren diru-laguntzek eman ahal izateko eta arautzeko oinarri zehatzak ezartzea da. Ikus I. eranskina.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bertan jasotako arauak arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden Ibarra Udalaren diru-laguntzen 2024-2027 Plan Estrategikoa, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean.

2. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokako erregimenean izango da eta printzipio hauen arabera egingo da: Publizitate, objetibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik eza. Eskumeneko organoak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da.

Deialdia onartua izan ondoren, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da. DDBN.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi honen bidez emateko zenbatekoa 5.000 eurokoa da 1.07.231.00.481.00 2026 partidari egotziko zaio:

Diru-laguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio prozeduran lortutako puntuazioa.

Zenbateko hori benetakotzat joko da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, diru-laguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste diru-laguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak diru-laguntzen zenbateko osoaren hainbanaketa egin dezake onuradunen artean, aurretik froga-txostena eginda.

4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke udalerrian garatuko diren, bai eta xede-talde gisa Ibarra herritarrak dituztenak ere, honako modalitateak ezberdintzen direlarik:

Urteko programa. Dirulaguntza honen bidez urte osoan garatuko diren ekimenak bultzatuko dira.

a.-) GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN DIHARDUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak jardueraren antolakuntzak dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten dagozkion aseguru-polizak itunduz.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

5. Onuradunak

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntza 4. artikuluan jasotzen diren jarduera-programaren bat garatu nahi eta oinarri hauetan zein diru-laguntza gaietan aplikagarria den araudian aurreikusitako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten Ibarra egoitza edo ordezkaritza iraunkorra duten diru irabazi asmorik gabeko izaera duten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuek.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako elkarte-erregistroan izena eman eta Ibarra kokatutako eta deialdi honetan ezarritako arloan jarduerak egiten dituzten elkarteak. Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 8. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Izaera juridiko gabeko pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatu, osatutako elkarteetan kasuan, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Taldearen ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko da, nahikoa ahalarekin onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko, aplikagarri izango baitzaio 38/2003 legearen 11. artikulua.
- b) Zinpeko aitortena non jasotzen den elkarte desegiteko ezintasuna diru-laguntzaren preskripzio epea amaitu arte, 38/2003 Legearen 39 eta 65. artikuluetan jasotako diru-laguntzaren itzulketa aitortu edo likidatzeko.

6. Baztertuak

Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

- a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnak.
- b) Lehiaketa eskaera egin dutenak, edozein prozeduretan kaudimengabeak jo direnak, lehiaketan egonik esku-hartze judizialaren mende daudenak edo lehiaketa legearen arabera ezgaituak izan direnak, beti ere sententzian jasotako inhabilitazio epea amaitu ez bada.
- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan direnak sartuta daudenean kontratatzeko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikagarri den legeria espezifikoaren arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautapeneko karguren bat izatea.
- e) Zerga obligazioak edo gizarte segurantzari buruzkoak ez betetzea, diru-laguntza emateko ebazpen proposamena ematzerakoan.
- f) Beren zerga egoitza dagoenean erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- g) Udal honek edo bere erakunde autonomoek emandako diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.
- h) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharretan egonik, ordainketak ez egitea (Diru-laguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa).
- i) Ebazpen irmo bitartez diru-laguntzak jasotzeko zigortua izatea diru-laguntzen Lege Orokorra edo Zergei buruzko legeari jarraiki.

j) Entitatearen ordezkariaren baten bateraezintasun legala, Udaleko pertsonal edo hautatuekin.

k) Era berean, ezingo da diru-laguntzarik eman, Ibarra Udalarekin dituzten zorren gainetik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.

l) Beren jardueraren bitartez, diskriminazioaren bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak .

m) Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.

7. Onuradunen eginbeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

a) Diru-laguntzak emateko arrazoi den xedea betetzea, proiektua gauzatzeari, jardueraren burutzeari edo jokabideari hartzea.

b) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarra Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko irizpideen 32.1 artikulua arabera, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

1. Ibarra Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardueran argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

a) Diruz lagundutako proiektu edo jardueraren genero ikuspegia txertatzea.

b) Udalaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jardueraren burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.

c) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea,



baita eskumena duten kontroleko organoek, nazionalak nahiz komunitarioek, egiaztatzeke edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.

e) Eskura izango ditu: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakioken merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.

f) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.

g) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarra udalaren diru-laguntza jasotzen duen programa, jarduera edo ekintzen finantzazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.

h) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero, jasotako dirua itzuli egin beharko du.

i) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz, diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.

j) Diru-laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitzeke proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta gainerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.

Halere, onuradunari urte osoan emandako diru-laguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeke, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortzen aurkeztu behar du.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatze beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru-laguntza arautzen duten gainerako arauarekin.

k) Diru-laguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarra Udalak finantzatzen dituela egoki zabalitzea bidezko publizitatea emanez, baldin eta

betebehar hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean exijitu bada.

l) Jasotako funtsak itzultzea, Ibarra diru-laguntzen ordenantza orokorrean xedatutako kasuetan.

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.
2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

9. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea. telematikoki

Deialdi honek aurreikusten dituen diru-laguntzak jasotzeko eskabideak, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta 20 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Erregistro Orokorrean.

Eskaerak, ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko ahal izango dira Ibarra Udalaren erregistro telematiko bidez (<https://ibarra.eus>), (sinadura elektronikoaren edo pasahitzaren bidez) eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarritako berariazko inprimakia erabiliz.

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira egoitza elektronikoan (www.ibarra.eus).

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin aurkeztu beharko dira:

- a) Diru-laguntzarako eskari-orri normalizatua behar bezala beteta.
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- c) Elkartearen estatutuen fotokopia.
- d) Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen (I.F.K.) fotokopia eta erakundearen ardura duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- e) Eskaera besteren baten izenean eginez gero, eskatzaileak duen ordezkariaren egiaztagiria, bai elkarte edo taldeak hartutako akordio bidez, bai ahalduntzearen bidez sozietateen kasuan.
- f) Eskaria egiten duen Erakundeak irekitako Kontu Korrontearen titularitatea



ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko ziurtagiria.

- g) Instituzio, erakunde eta abarrei eskatutako diru-laguntzen edo, hala bada, jasota dituzten haien aitorpena.
- h) Diru-laguntza xede izango duen programaren edo ekintzaren txostena zehaztuta.
- i) Programaren edo ekintzaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontua.
- J) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria (edo hala badagokio, eranskinean dagoen agiria, dagokion moduan beteta).
- j) Zinpeko aitorpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batetan sartuta ez dagoela adierazteko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3. artikuluetan zehaztutakoak izango dira.
- k) Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun baliouduneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egin beharko da diru-laguntza horren ematea arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritziaren arabera izatera baitu diru-laguntza honek ere.

Eskabideak eta informazioa non eskuratu: San Bartolome plaza 2. Zenbakian (Ibarra Udalean), www.ibarra.eus edo 943-670415 telefonoan.

10. Baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza ematea lehia-erregimenaren bidez erabakiko da; kasu bakoitzean finkatutako irizpideen arabera, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzen duen diru-laguntza kopurua soilik hautatuko da.

Diru laguntza lerro bakoitzari dagokion eranskinean jasota daude balorazio irizpide espezifikoak.

Diruz laguntzekoak izan daitezkeen beste proposamen batzuen programarekin bat ez datozen aldetik izaera soileko diren proiektuak edo elkarteak aurkezten direnean, irizpide nagusia izango da diru-laguntza ematea ziurtatuz programa edo proiektua irizpide hauen arabera gauzatuko dela: Aurrekontuen bideragarritasuna, jarduerarako aurreikusitako defizita, eta hala badagokio, aurreko urteetan jarduera bererako emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Bide egokiena dela baloratzen den kasuetan, Udalak Hitzarmen modalitatea ezarri ahal izango du interesatuarekin. Hitzarmen horrek, entitatearen ordain gisa jasoko ditu urteko programak sustatzeko eta zabaltzeko eremuetako ekintza zehatzak garatzea eta gauzatzea.

11. Prozeduraren instrukzioa.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako eskuduna GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA departamentu burua izango da.

Departamentu buruak Alkateari edota Zinegotzi delegatuari aurkeztuko dio proposamena eta honek dekretu bidez onartuko du.

Erabakitzekeo proposamen horrek honako hauek jaso behar ditu:

- Eskaeren ebaluazioa.
- Eskatzaile-zerrenda, diru-laguntza jasotzeko proposatuko direnean.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.

Organo instruktoreak eska diezaieke interesdunei behar adina argibide eta informazio nahiz agiri prozedura izapidetzeko eta, oro har, ebazpena eman behar deneko datuak egiaztatzekeo beharrezko direnak.

Diru-laguntza norgehiagoka bidez emango da eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, laguntza kopuru bat aukeratuko da, diruz lagundu diren jarduketan kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duena.

12. Ebazpena

Prozedura hori erabakitzekeo eskumena izango duen organoa 11. atalean jasotakoaren arabera izango da. Epea bi hilabetekoa izango da.

Gehieneko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak

ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkiderenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, diru laguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

39/2015 Legearen arabera, interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, hargatik eragotzi gabe Administrazioak artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako moduan eman behar duen ebazpena, gehienezko epea ebazpen espresik gabe igarotzeak zilegitasuna ematen die interesdunei administrazio-isiltasunez baietsizat jotzeko., non eta ez duen kontrakoa agintzen lege-mailako arauen batek edo Espainian aplikatzekoa den Europar Batasuneko zuzenbideko edo nazioarteko zuzenbideko arauen batek.

Prozeduraren xedea jarduera baterako irispidea izatea edo jarduera horretan aritzea denean, isiltasunak balio ez eslea duela xedatzen duen legeak interes orokorreko arrazoi erabatekoetan oinarritu beharko du.

Ebazpenak entitate eskatzaileak eta aurkeztutako proiektuak eta jarduerak identifikatu ditu. Diru laguntza jasoko dutenez ebazpenak ezarriko du zein den diruz lagungarritzat hartutako gastua, zein portzentajetan izango den diruz lagundua, emandako laguntzaren zenbatekoa eta baita hori finantzatzeko erabiliko den kontu saila eta urtekoa ere. Jarduera bati diru laguntza ukatu bazaio, ukatzearen arrazoia zein den adieraziko da.

Deialdiaren ebazpena eman ondoren ez da aldaketarik onartuko bertan onartutako proiektuen zerrendan.

Ebazpena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arrazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Diru-laguntzaren ebazpenak alderdi hauek jasoko ditu:

- Onuradunaren identifikazio datuak.
- Diru-laguntzaren xedea.
- Emandako gehienezko zenbatekoa.
- Diruz lagunduko jarduera burutzeko eta zuzitzeko epea.

Ebazpenak zehaztuko du ordainketa bakarreko sistema (1.000,00 € baino gutxiagoko diru-laguntzak) edo zatikatuta (%75-%25) eskatutako diru-laguntzaren izaeraren arabera. Eman behar den diru-laguntza zehazteko, kontuan izango da beste irizpide batzuen artean, aurkeztutako eskaerak eta diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak Udalak horretarako bideraturiko aurrekontuan baitan.

Deialdiaren ebazpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da. DDBN.

13. Diru-laguntzaren zuriketa.

Diru-laguntza emanda, onuradunak honakoa egiaztatuko du:

- a) Emandako zenbatekoa helburua betetzeko bideratu dela eta diruz lagundutako jarduera burutzeko.
- b) Lorturiko emaitzak.

Egiaztatzea behar-beharrezkoa da betebeharra aitortzeko eta likidatzeko.

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuei emandako dirulaguntzak zuritzeko honako agiriok aurkeztuko dira:

1.- Egindako jardueraren edo programaren azalpen-memoria, zeinek gutxienez, atal hauek izango ditu:

- a. Programaren edo proiektuaren izena.
- b. Dirulaguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
- c. Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.
- d. Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.
- e. Finantza baliabideen zerrenda: Dirulaguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste dirulaguntza batekin edo onuradunekin finantzatutako beste jarduera batzuen ere.
- f. Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzaileen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.
- g. Ondorioak.

2. Programa edo jardueraren propagandarako egin diren kartelen kopiak.

3. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Udalaren nahiz Foru Ogasunaren zergak kitatuta dituela egiaztatzen duen agiria.

4. Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

Justifikazioaren alderdi ekonomikoa burutzeko garaian, Udalak honako mugak jarriko ditu:

SARRERAK:

Zehaztu beharko da zein izan diren jasotako sarrerak taulan jasotako mota bakoitzaren arabera. Fase honetan aipatu beharko da baldin bada baten bat nahiz eta oraindik ez jaso jasotzeko ziurtasuna dagoen.

GASTUAK:

1.- ERANSKINA: Udalak idatzi honi atxikita doan dokumentuan jasotzen den taula betetzea eskatuko du bai sarrera nola gastuei dagokionean. Orokorrean ez du eskatuko inongo dokumentu ez fotokopia ez original atxikitzea. Beraz elkarteek aipatu taula zuzen betetzea eta sinatzea da lan bakarra. Era honetan aitortzaileak bere gain hartzen du erantzukizuna dokumentu horretan jasotzen dena egia denarena.

2.- DOKUMENTU MOTAK: Udalak honako 4 dokumentu mota onartuko ditu:

- Fakturak
 - Erosketa tiketa
 - Elkarteetako gastu tiketa
 - Nominak
 - Erreziboak
- a) Tiketak erosketenak: 20 eurotik gorakoak ez dira onartuko. Hala ere CIF a eta BEZa jarrita izan beharko dute. Kopuru honetatik aurrera Udalak gutxienik faktura sinplifikatua eskatuko du. Honek esan nahi du, CIF a eta BEZaren detailea behintzat izan beharko duela.
- b) Tiketak elkarteko gastuak: Onartuko dira bertan kontsumitutakoaren gastuak, baina ez lokalaren erabilera, elkarte bera denean ekintzaren antolatzailea.
- c) Ordainagiriaren kasuan, % 15eko erretentzioak burututa egon beharko dute. Horrek esan nahi du ordainagiriaren % 85a zuzenean pertsonari emango zaiola eta % 15 a Ogasunean egin beharko dela sarrera. Kasu hauetan naiz eta udalean ez entregatu dokumentuak, % 85a jasotzen duenak sinatu egin beharko du ordainagiria jarriaz jaso duela dirua.
- d) Fakturen kasuan, BEZa banakatuta etorri beharko du bai portzentaje eta kopurua jasoaz.
- e) Erreziboak administrazioarenak. Administrazioaren batek erreziboren bat kobratu badiote. (kantxa erabilera.....)

f) Nominak: Kostu osoa jaso beharko da, bai langileari dagokion gordina nola Gizarte segurantzari ordaindu beharrekoa.

3.- PFEZ: Autonomoen fakturak PFEZ izango dute, eta ordainagiriekin ere bai. Ordainagiriaren kasuan % 15a da aplikagarria kasu guztietarako. Dirulaguntza eskatzaileak Ogasunean egin beharko du sarrera erretentzio horrena.

4.- BEZ-a: Irabazi asmorik gabeko erakundeak orokorrean ez dute bez-a jaso behar egiten dituzten fakturretan. Era berean fakturak badira formakuntza alorrekoak, kasu horretan ere normalean BEZik ez dute izaten.

5.- EREDU BETEBEHARRA: Eredu honetan jasotako datuak betetzea ezinbestekoa izango da, hala ez den kasuan atzera botako delarik justifikazioa, eta 10 eguneko epea emango da osatzeko.

6.- ONDOREN BURUTUTAKO IKUSKAPENA Udalak urtean zehar emandako dirulaguntza guztien artean, pare bat erakunderi eskatu ahal izango dio osatu dezan dokumentazioa, fiskalizatuaz aurreko urtean emandako dirulaguntzaren eduki materiala zuzena den edo ez. Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako diru-laguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

14. Diru-laguntza justifikatzeko epea.

14.1.- Urteko deialdi bidezkoak programaziokoak edo puntualak:
(beranduena 2027ko urtarrilaren 31a izango da)

15. Diru-laguntzaren ordainketa.

Lehen ordainketa egingo da behin behineko dirulaguntza erabakiak burutzerakoan, eta justifikazioa burutu ondoren, behin betiko kitapenak burutuko dira.

Dirulaguntzaren gastu eta sarreraren justifikazioa lehen ebazpenaren aurretik jasoz gero behin betiko kitapen bakar bat burutuko da.

Ez da ordainketarik egingo onuraduna zerga betebeharretan eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean ez bada, edo zorduna bada eta ebazpen bidez itzulketa agindu bada.

15.1.- Urteko programazioa.

Diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru-laguntzaren %75 ordainduko zaio. Gainerako %25 jarduera edo egitasmoaren justifikazioari onespena ematen zaionean ordainduko zaio.

15.2.- Ekintza puntualak.

Mila eurotik beherako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Diru-laguntzaren %100 behin behineko likidazio erabakiaren batera ordainduko dira.

a) Mila eurotik gorako diru-laguntza jasotzen duten ekintza puntualak: Ekintza gauzatu baino astebete lehenago diru-laguntzaren %75 ordainduko zaio. Gainerako %25 ekintzaren justifikazioari onespena ematen zaionean ordainduko zaio.

16. Emandako diru-laguntzen aldaketak.

Deialdia ebatzi ondoren onuradunen batek laguntzari uko egiten badio, dirulaguntzaren kopuru hori erabili ahal izango da aurrekontugatik laguntzarik gabe geratu den erakundeei laguntzeko, beti ere jasotako puntuazioaren edo hurrenkeraren arabera.

17. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri buruzko publizitatean, beti Ibarra Udalaren lankidetzara adierazi beharko da.

Propaganda, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz ere egin beharko da.

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartuko dute emakumeentzat iraingarria edo baztertzaila izan daitekeen propagandarik ez erabiltzeko.

18. Kontrol eta jarraipena.

Dirulaguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Dirulaguntzen finantza kontrola Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzaitza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

19. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren itzulketa araubideari.

Dirulaguntza jasotzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geratuko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

20. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 50. artikuluan ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

21. Interpretazioa.

Oinarri hauetan hutsuneak egonez gero, Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren eta azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren araututakoa kontuan izango da.

22. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

23. Datu babesen legea

Abenduaren 6ko 3/2018 legeak, Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoak batetik, eta Datu Pertsonalen babesa eta pertsona fisikoen zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren Erregelamenduak (UE 2016/679) bestetik, ezarritakoari jarraiki, dirulaguntza eskaeretatik lorturiko datu guztiak Ibarra Udalak bildu eta tratatuko ditu eskabidea egoki bideratzeko helburuarekin. Datuak tratatzeko, berriz, Ibarra Udalak ziurtatzen du segurtasun neurri egoki guztiak hartu dituela, eta horretarako langileak trebatu dituela horien pribatutasuna bermatzeko, galera ekiditeko, gaizki ez erabiltzeko, ez

aldatzeko , baimendu gabe ez sartzeko edota ez galtzeko eta horrekin batera, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko araudia betetzeko

I.ERANSKINA

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua da gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak egiten dituzten pertsona edo elkarteentzako diru-laguntzen emakida arautzea

Oinarri hauetan araututako laguntzak elkarten funtzionamendurako, zein elkarte-jarduerako kolektiboari zuzendutako berariazko programa edota zerbitzuak garatzeko emango dira. Halaber, Udaleko Gizarte Zerbitzuek beren jarduerak burutzean antzemandako premia zehatzak ebatz ditzaketen jarduera eremuetara zuzendutako programa edo zerbitzuen garapena proposatzen duten jarduera edo proiektuetarako ere eskaini ahal izango dira, eta kolektibo zehatz batzuen partehartzea eta ongizatea sustatzen dituzten jardueretarako ere bai.

Deialdi honen bidez, Gizarte Zerbitzuen alorrean diharduten pertsona edo elkarteentzako laguntzak dira; 5.000€ko zenbatekoa du eta ondorengo udal partidatik joango dira: 1.07.231.00.481.00.2026

2. Onuradunak

Diru-laguntza hau eskatu ahalko dute irabazi asmorik gabeko elkarte edo pertsona fisikoek. Baldintzak hauek dira: beren jarduerak oinarri hauen helburuarekin bat etortzea, Ibarra udalari izatea, Ibarra udalari izatea helbide soziala edo ordezkaritza iraunkorra, IBARRAko pertsonak artatzea edo Ibarra udalari egitea urtean zehar beren jarduerak.

3. Balorazio-irizpideak.

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren eskaerak hautatuko dira (gehienez 100 punturaino).

Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Hartzaileak:

- Elkarteko bazkideei bideraturik: 5 puntu arte.
- Biztanleriari orokorrean bideratuak: 10 puntu arte.

Jardueraren eragina:

- Parte hartu edota onura izango duten Ibarra udalari pertsona kopurua: 5 puntu arte.
- Zailtasun sozialak dituzten herritarrei zuzentzea eta hobekuntza pertsonalean,

- familiarrean edo bestelakoetan laguntzea: 20 puntu arte.
- Behar bereziak dituzten giza-taldetara zuzentzea: 20 puntu arte.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako esku-hartze eremuaren funtzioak osatzea: 15 puntu arte.
- Ibarra herriaren premiei erantzuteko jarduera berria izatea: 15 puntu arte.

Elkartea:

- Udal Gizarte Zerbitzuekin izandako lankidetzak: 10 puntu arte.
- Elkarteko zuzendaritza-batzordean emakume eta gizonezkoen parte-hartzean parekidetasuna: 5 puntu arte.
- Elkarteko partaideen artean emakume eta gizonezkoen parekidetasuna: 5 puntu arte.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da.

Eskaera bakoitzerako diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da 500 €-tik gorakoa izan. Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiektuen bat (edo batzuk) sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen hurrenkera ez da ezarri behar.

5. Prozeduraren instrukzioa.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako eskuduna GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA departamentu burua izango da. Alkatea edo zinegotzi delegatua izango dira eskudun.

6. Ebazpena

Prozedura hori erabakitzeko eskumena izango duen organoa Alkatea edo zinegotzi delegatua izango dira. Epea bi hilabetekoa izango da.

Gehienezko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkiderenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, diru laguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako

Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Horrela jasotzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 123 eta 124 artetan.

Bestela, Administrazio-auzietako errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Edonola ere, berraztertze errekurtsoa jartzea aukeratuz gero, ezingo da administrazio-azietakoa aurkeztu hura berariaz ebatzi arte edo isiltasunez ezetsi arte. Hori guztia egoki iritzitako bestelako errekurtsoa aurkeztea baztertu gabe.

BIGARRENA. 2026eko deialdirako 5.000 euroko gastua baimentzea, 1.07.231.00.481.00 2026 kontu sailari egotziko dena.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

HIRUGARRENA.- Argitaratzea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean DDBN, G.A.On eta Ibarra web orrialdean oinarriak interesatuek argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 egunetan eskaerak aurkez ditzaten. Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaile hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

LAUGARRENGOA. - Erabaki honen berri eman hurrengo Udalbatzan.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Gizarte Politikak, Politika Feminista eta Aniztasuna
saileko zinegotzi delegatua

Nagore Zubillaga Garmendia



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026WDDT0003-Dekretua_OR/Decreto_GE (IBARRAKO UDALA)